


# BERTSOLARITZA LEHEN HEZKUNTZAN

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

*“BERTSOLARITZA IKASTETXEAN”*

MIKEL RETEGI URROZ

2020-2021

TUTOREA: ASIER BARANDIARAN AMARIKA

**Gradu amaierako lana**

Euskaldunontzat bertsolaritza euskal kulturako zati nagusienetako bat dugu eta bertsolaritza poliki poliki are eta gehiago hedatzen doan arren oraindik ere gehiago sustatzeko eta zabaltzeko lanean jarraitu behar da. Hori dela eta, “Bertsolaritza ikastetxean” proiektuan oinarritutako Gradu Amaierako Lana da hau. Honen azterketa egiteko Bertsozale Elkartearen lan egiten duten lankideei eginiko galdetegiak hartu dira kontutan. Bertan irakasleek emandako erantzunez baliaturik egitasmo honek dauzkan onurak eta gabeziak ondorioztatu ditut eta proposmen didaktiko bat sortu dut alderdi guzti horiek asetu eta proiektuari konplexutasun puntu bat sartzeko asmoz.

Hitz gakoak: bertsolaritza, hezkuntza

Para los vascos el bertsolarismo es una parte fundamental de la cultura vasca y aunque el bertsolarismo vaya creciendo poco a poco todavía hay que seguir trabajando para que el bertsolarismo se extienda más. Por eso, esto es un trabajo de fin de curso que está basado en el proyecto “*Bertsolaritza Ikastetxean*”. Para hacer el análisis de este proyecto se ha tomado en cuenta el cuestionario que se ha hecho a unos miembros de “*Bertsozale Elkartea*”. Basándome en las respuestas de los miembros de “*Bertsozale Elkartea*” he contrastado los aspectos positivos y negativos del proyecto con el fin de crear una proposición didáctica para dar un punto de complejidad al proyecto.

Palabras claves: bertsolarismo, educación

For the Basque people, the improvisation of verses is an essential part of the Basque culture and even though it is slowly extending, still more work needs to be done in order to develop and expand. Therefore, this is an end of year assignment based in the project “*Bertsolaritza Ikastetxean*”. In order to do the analysis of this project, it has been taken to account the questionnaire done to some members of the “*Bertsozale Elkartea*”. Based on the answers of the members of the “*Bertsozale Elkartea*”, I have contrasted the positives and negatives aspects of the project with the purpose of creating a didactic proposal in order to give complexity to the project.

Key words: improvisation of verses, educational system

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
MARKO TEORIKOA.....	4
AUKERATUTAKO GAIA.....	4
BERTSOLARITZAREN HISTORIA.....	4
BERTSOLARITZA IKASTETXEAN.....	6
HELBURUAK.....	9
METODOLOGIA.....	9
EMAITZAK.....	10
BILAKERA.....	11
HELBURUAK.....	11
MATERIALA.....	12
METODOLOGIA.....	12
EGITASMOAREN ERAGINA.....	13
ALDERDI LINGUISTIKOAN.....	13
ALDERDI KULTURALEAN.....	14
EGITASMOAREN INGURUKO ONDORIOAK.....	14
ONDORIOAK.....	15
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA.....	17
TESTUINGURUA.....	17
SAIO SEKUENTZIA.....	17
EBALUAZIOA.....	26
HOBETZEKO PROPOSAMENAK.....	26
ERREFERENTZIAK.....	28
ERANSKINAK.....	30
GALDETEGIA.....	30

## **SARRERA**

\_\_\_\_\_Ondoren irakurtzeko aukera izango duzuen lana “Bertsolaritza irakaskuntzan” proiektuan oinarrituta dago.

“Bertsolaritza Lehen Hezkuntzan” gaia aukeratzearen arrazoi nagusienetako bat bertsolaritzarekin dudan zaletasuna izan da. Nahiz eta txapelketeetan edo oholtza gaineko erakustaldietan ez jardun, betidanik bertsolaritza munduan barneraturik ibili nahiz, bai lagunarteko hitzaldietan bai erakustaldi eta txapelketetako ikusle bezala.

Zaletasun honen eragile nagusienak nire gurasoak izan dira, hain zuzen ere, bertsolaritzaren oso jarraitzaileak izan direnez txikitari igandean telebistan bertso emanaldiak ikusten eta entzuten ibiltzen ziren eta poliki poliki euskal kultura honetan barneratzen hasi nintzen.

Urteak pasa ahala nire nortasuna eraikitzen hasi zen eta euskal kulturaren are eta gehiago barneratzea eragin zuen, bai euskararen erabilera miresten eta bai hizkuntza hau sustatzen dituzten ekintzak jarraitzen, hala nola, bertsolaritza.

Baina bertsolaritzarekin gizartean ikusi dudari arazo handienetako bat euskal kulturaren arte hau hezkuntzan gutxi baloratuta dagoela edota ordu gutxi ematen direla da. Hori dela eta, ondoren irakurtzeko aukera izango duzuen lanean bertsolaritzak ikastetxeetan zer nolako lanketa edo indarra duen ikusiko duzue eta horrez gain, bertsolaritzak ikastetxeetan lantzeak zer helburu duen ikusteko aukera izango duzue.

Bertsolaritzak Ikastetxeetan zer nolako garrantzia duen ikusteko “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoan oinarrituko gara, hain zuzen ere, euskal herrian bertsolaritza lantzen duten ikastetxeak proiektu honekin lan egiten baitute. Hori dela eta, ondoren irakurriko duzuen lanean “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoan oinarrituta egongo da.

Horrez gain, bertsolaritza munduan ezaguna dugun Bertsozale Elkarteko zenbait adituek emandako ikuspuntuak hausnartzeko aukera izango duzue, hain zuzen ere. Elkarte horretan lan egiten duten lankideei galdetegi bat prestatu zaielako.

Azkenik, Bertsozale Elkarteko kideek emandako ikuspuntuak ondorioztatu ondoren “bertsolaritza irakaskuntzan” proiektuaz baliaturik sortu dudari proposamen didaktiko irakurtzeko aukera izango duzue.

## **MARKO TEORIKOA**

\_\_\_\_\_Marko teorikoari dagokionez, nik aukeratutako gaia “bertsolaritza Lehen Hezkuntzan” izan da, hori dela eta, nire lana “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoan oinarrituta dago. Horretarako, programa honetaz baliaturik eta zenbait adituen ikuspuntuak aztertutik unitate didaktiko egoki bat zein izan daiteken azaltzen saiatuko naiz, nola ez, aditu ezberdinetan oinarritutako marko teoriko bat osatuz. Horrez gain, lehenik eta behin bertsolaritzaren jatorria eta bilakaera nolakoa izan den azalduko dut proiektu honen ardatza nondik datorren ikusteko.

### **Aukeratutako gaia**

\_\_\_\_\_Bertsolaritza ikastetxean zer modutan ematen den azaltzen hasi aurretik gure hitz gakoan oinarritu behar gara, hau da, bertsolaritzan. Bertsolaritza euskal kulturako zati bat dela argi dago eta Sarasua, Garzia eta Egañaren (2001) arabera euskal literatura genero bat bezala kontsideratua izan da, baina, zehazki, zer da bertsolaritza?

Xabier Payak (2013) bertsolaritza diskurtso neurtu, errimatu eta kantatuen artea bezala deskribatzen du. Denbora tarte batean proposaturiko gai baten edo norberak asmatutako gaiaren inguruan kantatzen den performantzea bezala.

Aulestiak (2020) instrumentu musikalik gabe momentuan kantatutako poesia bezala definitzen du bertsolaritza.

Perez Aldasorok (2009, 2-3 orr.) aipatzen duen bezala, Xabier Amuriza bertso baten bidez bertsolaritza zer den definitu duen bertsolari bakarrenetako bat da:

*Hizketan lerratzen da  
gizonen bizitza  
jolas edo jokoan  
pozago gabiltza  
neurritz eta errimaz  
kantatzea hitza  
horra zer kirol mota  
den bertsolaritza.*

### **Bertsolaritzaren historia**

\_\_\_\_\_Bertsolaritzaren sorrera zehaztea mito bat bihurtu da bertsolaritzaren munduan, hain zuzen ere, zenbaitek bertsolaritza modernoa dela eta XIX. mendekoa dela esaten baitute (Azurmendi, 1980).

Dena den, Lekuonak (1975) bertsolaritza historiaurreko kontu bat dela aipatzen du eta orain dela 10.000 urte atzera bertsolaritza eta inprobisazioa bere gorenean zeudela aipatzen du, komunikatzeko ohiko modua bezala azpimarratuz.

Manuel Lekuonan ilobak, Juan Mari Lekuonak (1982) osabaren hitzak defendatu zituen bertsolaritza munduan zehar ohikoa izan dela azpimarratuz.

Honekin jarraituz, Mitxelenak (1960) bertsolaritza XV. mendeko dama inprobisatzailetan oinarritzen du Garibai historialariak esaten duen moduan.

Aipamen honi indarra emateko, Joxe Azurmendik (1980) 1452an bertsolaritzaren lehen aipamenak Bizkaiko Foru zaharretik agertu zirela dio. Garai hartan bertsolaritza Bizkaian indarrean zegoen, hain zuzen ere, urte horretan aipamen horiek debekatzeko ahaleginak egin baitziren.

Garai hartan bertsoak ahoz transmititzen ziren eta bertsoak kantatzen zituzten autoreak emakumezkoak izan ohi ziren (Alberro eta Bijuesca, d.g).

Baina, sailkapen klasikoaren arabera bertsolaritzaren historia XVIII. mendearen amaieran kokatzen da (Iraola, 2001).

Egaña, Sarasua eta Garziak (2001) XIX. mendean bertsolaritzaren dokumentu gehiago agertzen joan arren, XX. mendearen erdi arte sortutako bertsoak jarriak zirela aipatzen dute. Bertso idatzi horietaz gain, garai haietan bertsoak ahoz transmititzen ziren susmoa dago nahiz eta hori ziurtatzerik ez izan.

Bertsolaritzaren aldaketa nagusia XX. mendean eman zen. Nahiz eta XX. mende hasieran bertsoak idatziak izan, XX. mendearen erditik aurrera bat-bateko bertsolaritza sortu zen eta bertsoak jende aurrean ahoz transmititzen hasi ziren (Perez Aldasoro, 2009).

Aldaketa honen sortzaile nagusia bertso eskolen sorrera izan zen. Hasiera batean bertsoak intuizioz asmatzen ziren eta bertso eskolen sorrerak lehen dedukzioz ikasten zen hori orain bertsolaritza modu metodologiko batez ikastera eraldatu zuen (Barandiaran, 2015).

Bertso eskolen loraldia 80. hamarkadan eman zen Xabier Amurizaren *zu ere bertsolari* eta Juanito Dorronsoren *Bertsotan I* eta *Bertsotan II* liburuei esker, hain zuzen

ere, bertsolaritza irakasteko lehen metodo didaktikoak izan baitziren (Bertsozale Elkartea “1”, d.g.).

### Bertsolaritza irakaskuntzan

Bertso eskolek izandako loraldia aprobetxatuz, Bertsozale Elkartek bertsolaritzaren transmisioa handitzeko helburuz bertsolaritza ikastetxeetan barneratzea erabaki zuten (Hik Hasi, 2012). Horretarako, Bertsozale Elkartek 1985ean “Bertsolaritza Irakaskuntzan” izeneko proiektu bat sortu zuen. Nahiz eta proiektu hori hasiera batean Nafarroan abiatu, gaur egun Euskal Herriko ikastetxe gehienek hartzen dute parte (Bertsozale Elkartea “2”, d.g.).

Barandiaranen (2015) arabera, Nafarroako Hezkuntza Sailak “Bertsolaritza Ikastetxean” programa ikasleen Curriculumean ezarrita du, hain zuzen ere, proiektu honen helburu nagusia bertsolaritzaren eta hizkuntzaren bitartez euskararen ikaskuntza komunikatiboa indartzea eta hobetzea baita.

Hasiera batean proiektu honek 6 orduko ikastaroak eskaintzen zituen hezkuntza arautuan. Honen bilakaera ikusirik, egitasmo hau 6 orduko ikastaroak ematetik 5. eta 6. mailako ikasleei 30 orduko saio kopuruak eskaintzera igaro zen (Barandiaran, 2015).

2009an eman ziren etenik gabeko murrizketen erruz, behera egin zuten programa jasotzen zuten bai talde kopuruek eta bai ikastetxe bakoitzari eskainitako ordu kopuruek (Otamendi, 2014). Hain zuzen ere, 30 orduko saio kopuruetatik 15 orduko saio kopuruak eskaintzera igaro ziren. Dena den, aldaketa honek programa ikastetxe gehiagotara zabaltzeko aukera eman zuela aipatzen digu EHU-ko irakasle dugun Asier Barandiaranek (2015).

Egitasmoarekin jarraituz, “Bertsolaritza Irakaskuntza” proiektua indartzeko Bertsozale Elkartek ikastetxeetan duen proiektu honen oinarri teorikoa 2008an ezartzen da “Bertsolaritzaren Curriculum Lehen Hezkuntzan” lana argitaratzerakoan (Hik Hasi, 2012). Curriculum honek proiektu honen ardatz metodologikoak, bertsolaritzaren bidez lantzen diren arloak, arlo hauen edukiak eta ebaluazio irizpideak zehazten ditu (Bertsozale Elkartea, d.g.).

“Bertsolaritzaren Curriculum Lehen Hezkuntzan” liburuak bertsolaritza lau arloz osatuta dagoela adierazten du: hizkuntza, kultura, musika eta trebetasun pertsonalak eta sozialak (Aizpurua et al., 2008)

Horrez gain, “bertsoikasgela. eus”-en erreparatu genezaken bezala bertsolaritzaren bidez Lehen Hezkuntzako Curriculumean jasota datozen oinarrizko hezkuntza gaitasunak ere lantzen dira (<https://bertsoikasgela.eus/info/>):

- *Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna – Ahozkotasuna*
- *Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.*
- *Ikasten ikasteko gaitasuna.*
- *Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.*

Curriculumean oinarrituta, hasiera batean Bertsozale Elkarteko irakasleak “Gu ere bertsotan” egitasmoaz baliatzen ziren saioak aurrera eramateko orduan, hain zuzen ere, “Gu ere bertsotan I” eta “Gu ere bertsotan II” liburuez (Hik Hasi, 2012). Ikasmaterial honek 2011. urtean Jaurilaritzako Hezkuntza Sailaren Ixar Mendizabal saria irabazi zuen (Bertsozale Elkartea “3”, 2019).

Dena den, Bertsozale Elkarteko irakasleak ikasmaterial berria sortzen eta berritzen hari dira etengabe ikasgelako beharretara oinarrituz eta horrek beste zenbait eremuetan bezala, “bertsolaritza ikastetxean” programan ere aldaketak ekarri ditu (<https://bertsoikasgela.eus/info/>). Irakasleak sortutako material berri guztia “Bertsolaritza Curricula Lehen Hezkuntzan” lanean biltzen da. Gaur egun, hezkuntza arautuan dagoen proiektuan erabiltzen den ikasmateriala “bertsoikasgela.eus” web orrian irakasleak sortutako oinarrizko material didaktikoei eta “Mundu bat bertso” argitalpenek osatzen dute (Bertsozale Elkartea “2”, d.g.).

Horrez gain, Bertsozale Elkartek bertso eskoletan eta ikastetxeetan bat batean bertsoak abesten ibiltzeko sei karta sortez osatutako bilduma bat atera du (Bertsozale Elkartea “4”, 2021).

Bertsolaritza egunerokora egokitzen ari denez, ikasmaterialean eragin duen bezala metodologian ere eragin handia izan du eta horrek aldaketak ematea ekarri du, hau da, metodologia aldaketa (Bertsozale Elkartea “5”, 2021).

“Bertsolaritza ikastetxean” proiektua sortu eta indarra hartzen joan zenetik ahoz nahiz idatziz hasiera batean finkatuta zegoen azken emaitza hori lortzea helburu zuen metodologia erabiltzen zen. Metodologia honetan nahiz eta bertsoak ahoz kantatzeko



aukera ere izan gehienbat bertso idatzietan jartzen zen arreta. Azken emaitza hori lortzeko irakasleek ikasleei zenbait estrategia irakasten zitzairen eta ikasleek irakasleak emandako materialarekin bertsoak idatziz joaten ziren (Hik Hasi, 2012).

Azken urte hauetan, berriz, Mikel Artola Bertsozale Elkarteko kidea ikasleei bertsolaritza nola irakasten zaien aztertzen ibili da. Orain arte eginda zagoenetik abiatuta Artolak metodologia berri bat proposatu du, nahiz eta oraindik ere proposatutako metodologia berri hori eraikuntza prozesuan egon. Metodologia honen oinarria ikasleei bertsotan bat-batean ibiltzen ikastea datza (Bertsozale Elkarte "5", 2021).

Mikel Artolak metodologia aldaketa hau irakasle batzuentza beste batzuentzat baino zailagoa egiten ari zaiela aipatzen du baina orain bertsolaritza eginez ikastea dela kontua eta ez horrenbeste gramatikaren bidez ikasi eta gero hori praktikan jartzea (Bertsozale Elkarte "5", 2021).

Bertsozale Elkartearen barruan irakasle moduan lanean dabilen Nere Urrak metodologia honek gelako dinamika biziagoa eta parte hartzaileagoa bihurtzen duela eta ikasleei euren gaitasunak are gehiago garatzen laguntzen duela azpimarratzen du, hain zuzen ere, jolasaren bitartez bideratutako metodologia honek ikasleei asko motibatzen baitie (Bertsozale Elkarte "5", 2021).

Azkenik, helburuei dagokionez, "Bertsolaritza ikastetxean" egitasmoak honako helburu hauek lantzen ditu (<https://bertsoikasgela.eus/info/>):

#### *"IKASLEEI DAGOKIENEZ...*

- *Bertsolaritzaren oinarrizko ezagutza izatea eta zaletasuna piztea.*
- *Euskararekiko jarrera positiboa indartzea eta hizkuntza komunikaziorako konpetentzia (bereziki ahozkotasuna) garatzea.*
- *Jendaurreko emanaldi bat gauzatzeko oinarrizko betekizunak ezagutzea.*

#### *IKASTETXE ZEIN HERRI MAILAN...*

- *Bertsolaritza sustatzea ikastetxean eta herrian.*
- *Ikastetxeaz kanpo haurrek jarraipena ematea zaletasun horri.*
- *Euskararen erabilera bultzatzea."*

Azkenik, ikastetxeetan lantzen den Bertsolaritza proiektu hau aztertzeko eta ebaluatzeko "bertsolaitza ikastetxean" egitasmoan parte hartzen duten ikastetxeek ebaluazio orri bat

betetzen dute proiektuaren alor guztiak ebaluatu eta ekarpenak egiteko aukerak emanaz. Horrez gain, Bertsozale Elkarteko irakasleek ikastetxearen inguruko ebaluazioa aurkezten die zentroari eta udalari (Bertsozale Elkartea, d.g.).

## **HELBURUAK**

\_\_\_\_Gradu Amaierako Lan honen helburu garrantzitsuena bertsolaritza Lehen Hezkuntzan nola lantzen den aztertzea edota ikertzea da. Hori dela eta, Euskal Herriko ikastetxe gehienek haien zentroetan bertsolaritza emateko “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoan oinarritzen dira. Hori dela eta, Gradu Amaierako Lan honekin lortu nahi izan ditudan helburuak ondorengoak dira:

1. Bertsolaritzaren transmisioak zer nolako bilakaera izan duen aztertzea.
2. “Bertsolaritza ikastetxean” egitasmoak dituen helburuak ezagutzea.
3. “Bertsolaritza ikastetxean” egitasmoaren metodologia ikertzea.
4. “Bertsolaritza ikastetxean” egitasmoak ikasleengan duen eragina aztertzea.

Nahiz eta Gradu Amaierako Lan honekin goian aipatu ditudan helburuak bilatu nahi izan, Euskal kulturako zati nagusitzat dugun arte hau, hain zuzen ere, bertsolaritza indartzeko eta merezi duen garrantzia emateko helburuarekin burutu da. Lan hau Bertsolaritzak Euskal Herrian eta bertze zenbait lurraldetan duen indarra eta transmisioa zabaltzeko nahiarekin eraman da aurrera.

## **METODOLOGIA**

Gradu Amaierako Lan honetan bertsolaritza irakaskuntzan nola lantzen den aztertzeko ikerketa bat eraman da aurrera. Bertsolaritza irakaskuntzan nola lantzen den jakiteko, ikastetxeak bertsolaritza lantzeko ze egitasmo lantzen duten aipatu behar da, hain zuzen ere, “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoa. Hori dela eta, Gradu Amaierako Lan honetan “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoaren ikerketa edota azterketa egin da.

Egitasmo honen errealitatea aztertzeko elkarrizketa izan da tresna nagusia, hori dela eta, ikerketa hau metodo kualitatiboan oinarrituta dago. Elkarrizketa oinarritzat hartzeaz gain, dokumentuen informazioetan eta datuen bilketetan ere oinarritu naiz.

Metodo honen esker egitasmoaren errealitatea, loturak eta estruktura dinamikoa aztertzen laguntzen digu (Pita eta Pertegas, 2002).

Horrez gain, Cook eta Reichardten (1986) arabera, ikerketa metodo kualitatiboarekin eginez ikertzen ari den egitasmoaren ikuspuntu subjektiboak eta deskribatzaileak ezagutzea ekartzen digu bertako adituen datu edo emaitzen laguntzaz.

Aurrera eramandako ikerketa honetan sakonduz Bertsozale Elkarteko zenbait adituei egindako elkarrizketa batean oinarritu naiz. Ikerketa edo lan prozedura hau burutzeko, lehenik eta behin, marko teoriko bat osatu da “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoan oinarrituta. Horretarako, zenbait iturri ezberdinetik informazioa jaso da egitasmoaren nondik norakoak ezagutzeko. Behin egitasmoaren inguruko informazio objektiboa nuelarik Bertsozale Elkarteko kideei elkarrizketa bat egin zaio egitasmoaren inguruko iritziak eta ikuspuntuak jasotzeko.

Elkarrizketa honek, Bertsozale Elkarteko lau adituen iritziz “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoaren bilakaera, helburuak, metodologia eta materiala eta egitasmoak ikasleengan duen eragina zein den ezagutzeko eta ondorioztatzeko aukera eman dit.

Modu honetan, egitasmoaren alderdi guztiak ondorioztatu ondoren proposamen didaktiko bat egin dut “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoari konplexutasun puntu bat emateko.

Ikerketa aurrera eramateko burutu dudana elkarrizketan Bertsozale Elkarteko hiru kidek hartu dute parte:

- Iker Gorosterrazu: 18 urterekin Bertsozale Elkartean hasi zen irakasle, eragile eta bolondres ittundarra.
- Josu Sanjurjo: 2017an Bertsozale Elkartean sartu eta orain arte irakasle moduan jarduten dabilen euskal zalea.
- Mikel Artola: Bertsozale Elkarteko transmisio eragile alegiarra. Gipuzkoako lantaldean irakasle eta irakasleen formazio lanetan dabil. Horrez gain, Harituz Tolosaldeako bertso eskolako sortzaile eta kide ere bada.

## **EMAITZAK**

Goian aipatu ditudan Bertsozale Elkarteko kideek “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoaren inguruan dituzten ikuspuntuak plazaratzen hasi aurretik hauek emandako ikuspuntuak bost zatitan banatu ditudala aipatu behar dut, hau da, “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoaren ikerketa ondorengo bost ataletan edo esparruetan antolatu dut: bilakaera, helburuak, metodologia, materiala eta egitasmoaren eragina alderdi linguistikoan eta

kulturalean. Azkenik, atal hauek ikertu eta plazaratu ondoren aditu hauentzat egitasmoa baliagarria den ala ez azalduz amaituko dut.

### BILAKAERA

“Bertsolaritza ikastetxean” bertsolaritzara hurbilpena egin eta bertsolaritzaren transmisioa helburu duen egitasmoa da. Egitasmo hau hezkuntza arautuan sustatzen da ikasturte baten edo bi ikasturteren buruan. Horrez gain, Josu Sanjurjok egitasmoren definizioari oinarritzko elementuak modu dinamiko eta parte hartzaile batean barneratzea helburu duen egitasmoa dela gehitzen du.

Egitasmoa etengabeko eraldaketa prozesuan dagoela azpimarratzen dute eta Iker Gorosterrazuk berari dagokionez azken 10 urte hauetan “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoak Nafarroan izugarritzko aldaketa ikusi duela dio. Materialgintzari dagokionez, aurrerapausu eta hobekuntza handiak nabaritu dituzte eta gaur egungo teknologien erabilera oso ongi egokitu dira “bertsoikasgela.eus” web orrialdearen bitartez.

Dena den, bilakaeraren prozesu nagusia azken urte hauetan eman da bertsoa idatziz lantzeko tendentzia alde batera utzi eta ahozkoasuna eta bat batekoasuna lantzerako eboluzionatzerakoan.

Horrez gain, Mikel Artolak aipatzen digun moduan nahiz eta hasiera bateko datu zehatzik ez izan gaur egun egitasmoa oso egonkortuta dago, hain zuzen ere, 50 ikasle 28500 ikasleekin batera ari baitira egitasmoa aurrera eramaten.

### HELBURUAK

“Bertsolaritza ikastetxean” egitasmoak helburu bat baino gehiago dituela bat diote baina Josu Sanjurjok aipatzen duen bezala, helburu nagusienetako bat bertsolaritzaren oinarritzko elementuak barneratzea da, beti ere, bertsolaritzaren transmisioa sustatzeko eta zabaltzeko nahiarekin.

Horrez gain, egitasmo honen bitartez euskararen erabilera modu ludikoan lantzea bilatzen da ikasleek euskararekiko jarrera positibo bat lortzeko.

Iker Gorosterrazuk aipatzen digun bezala, egitasmoak helburu asko ditu eta aurreko helburuei gehituz bertsoaren bitartez trebetasun sozial eta pertsonalak garatzea bilatzen da, hala nola, jendaurrekoasuna zein komunikatzeko modu ezberdinak.

Helburu guzti hauez gain, ahozketasunaren edota bat bateketasunaren lanketa erabateko dela aipatzen digute Iker Gorosterrazu eta Josu Sanjurjo irakasleek.

Azkenik, Mikel Artolak helburu zehatzagoetara joan nahi badugu Bertsolaritzaren Curriculumera joan behar dugula dio, hain zuzen ere, honela adierazten digu:

*“Helburu zehatzagoetara joz, Bertsolaritzaren Curriculumak adierazten ditu zeintzuk diren. Hizkuntza, musika, kultura eta trebetasun pertsonal/sozialak lantzen dira bertsolaritzaren bidez”*

### MATERIALA

\_\_\_\_\_Urteak dira “gu ere bertsotan” ikasmateriala alde batera utzi eta “mundu bat bertso” ikasmateriala erabiltzen hasi zirela. Josu Sanjurjok nahiz eta ikasmaterialaren aldaketa eman zenean oraindik elkartean ez egon, bere suposizioz aldaketa barne gogoeta batek eragin zuela dio, hain zuzen ere, tematika garatzen joaten baita eta materialak etengabeko berrikuntza behar baitu bertsolaritza garai berrietara egokitu behar delako.

Dena den, materiala urtero modu naturalean berritzen joan ohi dira Bertsozale Elkarteko irakasle guztien artean. Honek, “mundu bat bertso” liburuez gain, gaur egun mundu digitalean dagoen “bertsoikasgela.eus” web orria erreferentzi nagusia bilakatu du.

Bertan, azken urteetan sortutako material guztia ikus entzunezko moduan eta fisikoki erabili nahi izanez gero PDF formatuan aurkitzen dira.

Orokorrean, Bertsozale Elkarteko langileak “bertsoikasgela.eus” web orrian oinarritzen dira haien saioak aurrera eramaterakoan, hain zuzen ere, Josu Sanjurjok adierazten duenez “mundu bat bertso” ikasmaterialeko gauza asko probesten dituen arren badira zenbait elementu ez direnak hain erabilgarriak euskararen periferian kokatutako lekuetan lantzeko.

### METODOLOGIA

Azken urteetan Mikel Artola Bertsozale Elkarteko transmisio eragilea bertsolaritza ikastetxean nola lantzen den aztertzen ibili da eta metodologia aldaketa baten beharra zegoela ikusi zuen. Aditu honek aipatzen digun bezala, metodologia aldaketa hau onuragarria izan da. Metodologia hau ahozketasunetik eta bat bateketasunetik hurbilago dago eta bertso saioetan sortzen den esperientzia gelara eramaten saiatzen dira. Nahiz eta metodologia hau bertso eskoletan erabili hezkuntza arautuan normalean ez zen erabiltzen.

Aldaketa honekin ikasleek bertsolaritzaren oinarrizko elementuak errezago ikasten dutelakoan daude eta ikasleak bat batean arituz hobe pasatzen dutela ikusten dute eta horrek frustatzeko aukera gutxiago egotea eragiten du.

Horrez gain, Iker Gorosterrazuk aipatzen digunaz oinarrituta aurreko metodologiarekin, hau da, bertsoak oro har idatziz sortzeko metodoarekin ikasleek zailtasun dexente garatu ohi zituzten eta ikasleen artean desberdintasun handiagoak ikusi zitezkeen, adibidez, dislexikoak diren ikasleekin.

Bertsolaritzaren ezaugarri nagusia inprobisazioa izanik, bat batekotasunak bertsolaritza bere osotasunean ikusteko aukera ematen dio ikasleei, beti ere, saioetan zehar idatzizkoa guztiz baztertu gabe.

Dena den, Josu Sanjurjok elkarrizketan aipatzen duen bezala, idatzizko bertsogintza lantzen segitzea gustatuko litzaiokela aipatzen digu modu honetara:

*“Hala ere idatzizko bertsogintza lantzen jarraitu nahi nuke nik, uste dudalako, hasiera batean bederen oso egokia dela bertsolaritzaren metrika eta gisako elementuak ulertzeko.”*

Amaitzeko, Mikel Artolak oraindik ere ikerketa amaitzeko dela aipatzen du eta metodologia bide onetik doan arren oraindik ere aldaketaren bat egon daiteke.

## EGITASMOAREN ERAGINA

### Alderdi linguistikoan

Bertsolaritza jolasteko herramienta bezala erabiltzen da eta horrek euskara modu ludikoan lantzea eragiten du. Bertsolaritzak euskararen komunikatzeko gitasunean asko eragiten duela dio Iker Gorosterrazuk, hain zuzen ere, bertsoa sortzerakoan euskaraz jarduteaz gain euskaraz soilik pentsatzea ere eragiten baitu.

Ikasleek bertso bat sortu edo bertso baten bitartez erantzun behar dutenean egoera komunikatibo konplikatu baten aurrean jartzen dira eta norberak erabilitako baliabide linguistikoen aberastasunarengatik edota gaitasunarengatik egoera komunikatibo horretatik ateratzea lortzen dutenean autoestiman eragin positiboa duela aipatzen digu Mikel Artolak.

Horrez gain, Josu Sanjurjok aipatzen digunaren arabera, bere saioak ez dira bertsolaritzaren historia euskaldunean oinarritzen, baizik eta, jolasaren bitartez hitzetik jolasteko baliabideak sustatzean oinarritzen dira, hau da, bere saioetan ez du ikasleek

bertsolaritzaren historia edota bertsolarien txapelketak ezagutarazteari ekiten baizik eta, bertsolaritza jolasen eta kantuen bitartez ulertzea bilatzen du, azken finean, bertsolaritzaren bitartez euskararekiko lotura garatzea baita garrantzitsuena.

### Alderdi kulturalen

Alderdi kulturalari dagokionez, ikasleek bertsolaritzaren elementuak ikasten dituztenean eta bertsoa euskal kulturaren barneko diziplina dela konturatzen direnean euskal kulturaren mundu txiki honetan barneratzen direla aipatzen digute gure adituek.

Gainera, bertsolaritza aitzakiatzat hartuz gainerako diziplina kulturalak ere landu ohi dituztela azpimarratzen du Iker Gorosterrazuk, hala nola, antzerkia.

Horrez gain, Mikel Artolak aipatzen digun moduan kantu inprobisatua ez da bertsolaritza soilik, baizik eta, beste kulturetan ere lantzen den ekintza bat da, hori dela eta, kulturartekotasunean ere eragina izaten du.

### EGITASMOAREN INGURUKO ONDORIOAK

“Bertsolaritza ikastetxean” egitasmoa aurretik aipatutako helburu edota arrazoiengatik oso baliagarria dela bat datoz hiru adituak. Bertsolaritzaren bitartez gelan lantzen ez diren zenbait aspektu lantzea lortzen dela ondorioztatu du Josu Sanjurjok, hala nola, jendeurrekotasuna, ahozkotasuna, intuizioa, irudimena, euskara maila, euskal kulturako zati bat ezagutzea, etab.

Aipatu berri ditugun aspektu hauek modu dibertigarri batean lantzea eragiten du proiektuak, hori dela eta, Iker Gorosterrazuk aipatzen duen bezala egitasmoa baliagarria zein garrantzitsua da.

Horrez gain, ikastetxeetan kulturgintzaren transmisioan eta ahozkotasuna lantzean hutsuneak daudela aipatzen du Mikel Artolak eta egitasmoak nahiz eta arazo guztiak ez konpondu horri erantzuteko modu bat dela dio, hori dela eta, leku gehiago behar lukeela azpimarratzen du.

Honekin bat, Josu Sanjurjok kurtso erdiaren ordezkari kurtso osoko ikastaroa bihurtu beharko litzatekela aipatzen du, hain zuzen ere, 15 saioetan taldearen beharrak eta ikasleak ezagutzeko aukera urria izatea ekartzen baitu.

Azkenik, nahiz eta adituak egitasmoa baliagarria zein beharrezkoa dela bat izan eteganbeko aldaketan murgildutako gizarte batean bizi garenez egitasmoaren oinarritik

abiatuta beti egongo dira eraldaketak egitasmoa ikasleen beharretara egokitzeko helburuarekin.

## **ONDORIOAK**

Marko teorikoan aipatutako adituen eta Bertsozale Elkarteko hiru kideen ikuspuntuak ikertu ondoren, “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoaren inguruan nik ateratako ondorioak zeintzuk diren azalduko ditut.

“Bertsolaritza ikastetxean” egitasmoa adituek esan bezala baliagarria zein beharrezkoa dela iruditzen zait ikasleei norbere gaitasunak sakontzen eta garatzen laguntzen dietelako. Alde batetik, irudimena, euskararen erabilera lingustikoa, ahozkotasuna, kulturartekotasuna, autoestima, etab. Bertze aldetik, berriz, euskal kulturaren barruan dugun genero bat hurbiletik ezagutzeko aukera ematen du eta horrek gure gizarte honetan mundu txiki batean murgiltzea eragiten du euskararekiko nortasuna eraikitzen lagunduz.

Ikastetxeetan, oro har, kulturaren lanketa oso urria dela iruditzen zait eta ikasleentzat kultura honen parte izaterakoan haien nortasuna eraikitzen laguntzen diela iruditzen zait.

Horrez gain, egitasmo honen irakaste prozesua modu ludiko batean eramaten da aurrera, hau da, bertsolaritzaren oinarritzko elementuak jolasen bitartez lantzen dira. Jolasak ikaskuntza prozesua dinamikoa eta zirrargarria izatea eragiten du eta ikasleak modu ludiko eta dinamiko batean ikasterakoan irakaskuntzarekin motibatuagoak egotea eragiten du. Motibazio horrek edukiak errezago barneratzea eragiten duela eta parte hartzeko gogo gehiago piztea eragiten duela pentsatzen dut.

Hori dela eta, “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoa ikastetxeetako ikasgaietan behar duen lekua eman behar zaiola iruditzen zait eta gizarteak hori ez duela oso agerikoa da, hain zuzen ere, marko teorikoan ikusi daitekeen bezala, 2009 an eman ziren etenik gabeko murrizketen erruz diru laguntzak kendu baitziren egitasmoak aurrera joateko oztopoak jarritz.

Horrez gain, bertsolaritzako irakasleen papera ezinbestekoa dela iruditzen zait, hain zuzen ere, egitasmoaren hausnarketak irakasle guztien artean egiten baituzte. Horregatik, oso garrantzitsua da irakasleak elkarlanean ibiltzea eta bai hoi en esperientziak eta bai ikasleek haien saioak nola bizitzen dituzten kontatzea. Modu honetan, egitasmoari



konplexutasun puntu hori ematen laguntzen dio ikasle guztien beharretara egokitutako aldaketak aurrera eramanez.

Azkenik ikerketaren ondorio garrantzitsuenera iritsi gara, hau da, metodologiara. Egitasmoa barrutik nolakoa den ikusten lagundu diguten adituen iritziak entzunda eta marko teorikoan adituek emandako informazioa irakurrita Mikel Artolak proposaturiko metodologia aldaketa berri horrekin bat dagoela esan behar dut. Aurreko metodologia, hau da, oro har idatzizko bertsoetan oinarritzen zen metodologia bertsolaritzaren ezaugarri orokorrak ikasteko oso baliagarria izan daitekeela iruditzen zait baina idazkerak ikasleen motibazioa itzaltzen duela uste dut. Metodologia berri honekin, hau da, bat batekotasunan oinarritutako metodologia honekin, ordea, ikasleei bertsolaritzaren oinarritzko ezaugarriak ikasten laguntzen diola iruditzen zait baina jolasaren bitartez eta bertsolaritza praktikotasunera are gehiago hurbilduz, hau da, intuizioa bat batean plazaratzera.

Horrez gain, metodologia berri honen esker marko teorikoan aipatutako eta Bertsozale Elkarteko adituek esandako helburuak lortzen laguntzen du bertsolaritza dugun errealitatera hurbilduz. Hau gutxi ez bada ere, bat batekotasunak normalean geletan lantzen ez den ahozkotasuna indartzera eramaten du.

Adituen erantzunak azterturik, hiru adituak ere bat datoz bat batekotasunean oinarritutako metodologia berri honek ikasleak gehiago motibatzen dituela, hain zuzen ere, bat batekotasuna jolasaren bitartez sustatzen delako. Hori dela eta, bat batekotasunean oinarritutako metodologia hau aurrera eramaten edo indartzen jarraitzeko nahiarekin ondoren irakurtzeko aukera izango duzuen **proposamen didaktikoa sortu dut.**

## **PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

### **TESTUINGURUA**

\_\_\_\_\_ Bertsozale Elkarteko kideek “bertsolaritza ikastetxean” egitasmotaz daukaten ikuspuntuak hausnarturik eta egitasmoaren inguruan ateratako nire ondorioak plazaratuta proposamen didaktiko bat sortu dut egitasmoaren gaur egungo oinarri nagusienetako bat sustatzeko asmoarekin, hau da, bat bateko bertsolaritza indartzea.

Ikerketa honetan zehar irakurri dezakezuen bezala, azken urte hauetan “bertsolaritza ikastetxean” egitasmoak metodologia aldaketa bat izan du, hain zuzen ere, idatzizko bertsolaritza alde batera uztea eta bat bateko bertsolaritzari arreta gehiago jartzea.

Irakasleek metodologia aldaketa honek ikasleak bertsolaritzan are gehiago motibatzea ekarri duela aipatzen digute, hori dela eta, bat bateko bertsolaritzak ikasleengan duen eragin positibo hau areagotzen segitzeko bat bateko bertsolaritzan oinarritutako 5 saio sortu ditut.

Bat bateko bertsolaritza lantzea oinarri izateaz gain, ikasleek bertsolaritzaren ezaugarri teknikoak ikasi eta landuko dituzte, hala nola, doinua, errima, neurria, etab.

Ondoren irakurriko dituzuen saioen aurretik aipatu behar dut saio bakoitzean ikasleek gai ezberdin baten inguruan aritu beharko dira bat bateko bertsolaritzan, hain zuzen ere, irakasleak aukeratzen duen gaian.

Laburbilduz, nik proposatutako saio sekuentzia hau bat bateko bertsolaritza sustatzeko nahiarekin osatu da, hain zuzen ere, Bertsozale Elkarteko kideetan oinarriturik ikasleak bat bateko bertsolaritzaren bitartez bertsolaritzan motibatzea eragiten dielako.

### **SAIO SEKUENTZIA**

1. <b><u>SAIOA:</u></b> ZER BAZKALDUKO DUGU GAUR?
---

**Materiala:** arbela digitala, elikagaien fitxa

**Lekua:** gelan

**Denbora:** 50 minutu

## TOPAKETA UNEA

→ **Agurra eta saioko helburuak:** Ikasleei unitate didaktikoaren berri emanen zaie eta saioko helburuak zein izango diren azalduko zaizkie. Horrez gain, saio bakoitzean gai ezberdin bat landuko dela aipatuko zaie eta gai horren aurrezagutzak aktibatu ostean bat batean arituko dira bertsotan. Gaurkoan, elikagaien gaia landuko da. (5 minutu)

### Helburuak

- Bat bateko bertsolaritza sustatzea
- Bertsolaritzaren oinarritzko elementuak lantzea
- Ahozkoasuna bermatzea
- Ikasleen parte hartzea sustatzea

## ATAL NAGUSIA

→ **1. jarduera:** lehenik eta behin, elikagaien inguruan botatako bertso baten bideoa jarriko zaie gaiaren inguruko nondik norakoak ulertzeko. Bideoa ikusi eta bertsoa entzun ondoren horren inguruan hausnarketa bat egingo da, ahoz. (10 minutu)

*BIDEOA:*

<https://bertsoa.eus/bertsoak/17946-txaber-sare-sozialetan-janari-banatzailen-lan-eskubid-eeen-aldeko-borrokan-dabil-etxera-iritsi-da-janaria-maialenentzat>

→ **2. jarduera:** irakasleak arbelan bertso erdi osatu batzuk jarriko ditu neurri ezberdinetan. Ikasleek arbelan dauden bertso horietako bat aukeratuko du eta bertso bat osatu beharko dute hor idatzita dauden esaldiak eta errimak errespetatuz. (15 minutu)

KOPLA TXIKIA 6

----- -----ERRETA Sagardotegian jan genuen TXULETA	----- -----ARRAKAS TA Italiar erara egin dugu PASTA	----- -----USAINA jantokian prestatzen digute ARRAINA
----- -----EGOKIA Bero zegoen eta jan dut IZOZIA	----- -----EDERRA DA oso osasuntsua gure ENTZALADA	----- -----BETETA Astebururo jaten ditut lau KROKETA

KOPLA HANDIA 6

----- -----GUSTURA Egarri baldin bazara edan beharko zenuke URA	----- -----ITZELA Postrerako aspaldiko partez probatu dugu PASTELA	----- -----BIKAINA Edonork nahiko luke dastatu gure barazki LASAINA
----- -----IBERIKOA Gabon gauean gustura jaten dugun URDAIAZPIKOA	----- -----KALTEA Tarteka ere oso goxoa delako TXOKOLATEA	----- -----KALITATEA Barazetik gure platerara zuzen doa TOMATEA

*(Bertsozale Elkarteko Josu Sanjurjo irakasleak sortutako taula)*

→ **3. jarduera:** ikasleak talde txikitan jarriko dira (4 ikasleko taldeak) eta irakasleak emandako gaiarekin bertso bat abestu beharko dute. (5 minutu)

*GAIA: Zein da zuen plater gustukoena?*

→ **4. jarduera:** ikasleak talde txikitan jarraituko dute (4 ikasleko taldeak) eta euren artean elikagaien inguruan punttuka arituko dira. (10 minutu)

**AGURRAREN UNEA**

→ **Saioaren itxiera:** bukatzeko, ikasleek talde handian gaurko saioari buruz hitz egingo dute bakoitzak zer ikasi duen eta saioan zehar nola sentitu diren jakiteko. Horrez gain, hasieran finkatutako helburuak landu diren hausnartuko dute. (5 minutu)

❖ **Oharrak:**

Ikasle guztien parte hartzea bilatzen da, hori dela eta, 3. jardueran ez da bertsoa kantatzeko orden zehatz bat mantenduko eta ikasleei haiek nahi duten ordenean abestuko dute baina bertsoak ezin izango dira inon idatzi, hain zuzen ere, bat bateko bertsolaritza sustatzea bilatzen baita.

Horrez gain, ikasleak gaiaren inguruan bertso ezberdinen bidez ezagutzak jasotzea bilatzen da ikasleen parte hartzea eta motibazioa sustatuz.

## 2. SAIOA: SENTIMENDUEKIN JOLASEAN

**Materiala:** arbela digitala, sentimenduen fitxa

**Lekua:** gelan

**Denbora:** 50 minutu

### TOPAKETA UNEA

→ **Agurra eta saioko helburuak:** ikasleei saioko helburuak zein izango diren azalduko zaizkie, hain zuzen ere, gaurkoan doinu berri bat ikastean jarriko zaio arreta bertsolaritzaren beste ezaugarriak lantzearekin batera. Horrez gain, irakasleak saio honetan zer gai landuko den azalduko du, hau da, gaurkoan sentimenduak landuko dira. (5 minutu)

#### Helburuak

- Bat bateko bertsolaritza sustatzea
- Bertsolaritzaren oinarritzko elementuak lantzea
- Ahozkoatasuna bermatzea
- Ikasleen parte hartzea sustatzea

### ATAL NAGUSIA

→ **1. jarduera:** lehenik eta behin, ikasleei "ai zapotxin" abestia jarriko zaie gaurko saioaren helburu nagusienetako bat abesti horren doinuaz baliaturik bat batean bertsoak abestea izanen baita. Abestia entzun ondoren, abestiaren doinua ahoz jarraituko dute doinuaren dinamika barneratzeko. (10 minutu)

**BIDEOA:** [https://www.youtube.com/watch?v=TU72A\\_9uw9Y](https://www.youtube.com/watch?v=TU72A_9uw9Y)

→ **2. jarduera:** irakasleak arbela digitalean sentimenduen errimaz agertzen diren zenbait puntu jarriko ditu. Ikasle bakoitzak nahi duen zutabea aukeratuko du eta bertso bat osatu eta abestu beharko du errima horiek mantenduz. (15 minutu)

----- -----GORROTOA ----- -----OZTOPOA	----- -----MAITASUNA ----- -----LAGUNA	----- -----BELDURRA ----- -----TXAKURRA
----- -----ZORIONA ----- -----ONA	----- -----INBIDIA ----- -----HANDIA	----- -----TRISTURA ----- -----NEGARGURA
----- -----ESPERANTZA ----- -----DANTZA	----- -----HASERREA ----- -----IRRIBARREA	----- -----ALAITASUNA ----- -----DUGUNA
----- -----ESKERTUTA ----- -----LAGUNDUTA	----- -----FRUSTRAZIOA ----- -----DESIOA	----- -----ENPATIA ----- -----GIZAKIA

(Bertsozale Elkarteko Josu Sanjurjo irakasleak sortutako taula)

- **3. jarduera:** ikasleak talde txikitik jarriko dira (4 ikasleko taldeak) eta ikasle bakoitzak gaur nola sentitzen den adierazi beharko du bertso baten bitartez. (10 minutu)
- **4. jarduera:** ikasleak haien emozioez bertsoan aritu ondoren berriro ere talde handian jarriko dira eta saioan zehar landu dituzten emozio guztiak erreparasatzeko bideo bat jarriko zaie abesti baten laguntzaz. (5 minutu)

BIDEOA: <https://www.youtube.com/watch?v=3rCfhEh26t0>

## AGURRAREN UNEA

- **Saioaren itxiera:** amaiera emateko hasieran aipatutako helburuak bete diren hitz egingo da. Horrez gain, ikasleak saioan zehar nola sentitu diren hausnartzen egongo dira.

### ❖ Oharrak:

3. jardueran ikasle bakoitzak haiek nola sentitzen diren abesten dutenean norberak nahi duen doinua erabili dezake.

## 3. SAIOA: ANIMALIA IZAN NAHI DUT

**Materiala:** arbela digitala, errimen fitxa

**Lekua:** gelan

**Denbora:** 50 minutu

## TOPAKETA UNEA

→ **Agurra eta saioko helburuak:** ikasleei saioko helburuak zeintzuk diren azalduko zaizkie eta ondoren gaurko saioan ze gaiaren inguruan lan egingo den azalduko zaie, hain zuzen ere, saio honetan animaliei buruz arituko dira. (5 minutu)

### Helburuak

- Bat bateko bertsolaritza sustatzea
- Bertsolaritzaren oinarritzko elementuak lantzea
- Ahozotasuna bermatzea
- Ikasleen parte hartzea sustatzea

## ATAL NAGUSIA

→ **1. jarduera:** ikasleek animalien inguruko bertso bat entzungo dute gaur egungo errealitatearekin hausnartu al izateko eta landuko den gaiarekin harremanetan jartzeko. Bideo ikusi ondoren Onintza eta Egañak bideoan abestutako bertsoaren inguruan hausnarketa bat egingo da ahoz. (10 minutu)

**BIDEOA:** <https://bertsoa.eus/bertsoak/17965-festak-ospatu-animaliak-askatu>

→ **2. jarduera:** Ondoren, irakasleak arbelan lau errima jarriko ditu eta eta ikasleek animalien inguruko edukiekin errimen taula osatuko dute, beti ere, ikasleak errima dakitenean ahoz esan behar dute irakasleak errima hori arbelan jartzeko. (5 minutu)

	EA	IA	OA	UA
ANIMALIAK	IZURDEA			

→ **3. jarduera:** taula osatuta dagoenean ikasle bakoitzak bertso bat bota beharko du nahi duen doinuan irakasleak emandako gaiarekin. (15 minutu)

*GAIA: Edozein animalia izateko aukera izango bazenu zeintzuk aukeratuko zenituzke?*

→ **4. jarduera:** ikasleak talde txikitik jarriko dira (4 ikasleko taldeak) eta euren artean elikagaien inguruan punttuka arituko dira. (10 minutu)

## AGURRAREN UNEA

→ **Saioaren itxiera:** ikasleak berriro ere talde handian kokatuko dira eta gaurko saioan zer ikasi duten eta saioan zehar nola sentitu diren kontatuko dute. Horretarako irakasleak ondorengo galderak erabili ditzazke: “Zer ikasi duzue?”; “Nola sentitu zarete?”; “Zer aldatuko zenukete?”...

❖ **Oharrak:**

Talde txikietan antolatu behar direnean aurreko saioan punttuka aritu ziren lagunekin ezin izango dute elkartu. Talde ezberdinak eta beti ere heterogeneoak osatu beharko dituzte. Modu honetan, bertsolaritzaren bidez ikasleek haien arteko harremana indartzea bilatzen da bazterkeria egoerak ekidinez.

#### 4. **SAIOA:** NOR DA NOR... ASMATUKO AL DUZU?

**Materiala:** arbela digitala

**Lekua:** gela

**Denbora:** 50 minutu

#### TOPAKETA UNEA

→ **Agurra eta saioko helburuak:** ikasleei gaurko saioaren helburuak zeintzuk diren azalduko zaizkie. Horrez gain, gaurko saioan landuko den gaia azalduko die, hau da, gaurkoan asmakizunak landuko direla azalduko zaie. (5 minutu)

**Helburuak**

- Bat bateko bertsolaritza sustatzea
- Bertsolaritzaren oinarriko elementuak lantzea
- Ahozkoatasuna bermatzea
- Ikasleen parte hartzea sustatzea
- Norberaren irudimena lantzea

#### ATAL NAGUSIA

→ **1. jarduera:** irakasleak bertsolaritzan egin ohi den jolas baten bideoa jarriko die gaurko saioaren nondik norakoak hobeto ulertzeko. Ondoren, bideoaren eta bertsolaritzan egin ohi den jolasaren inguruan hausnartzen arituko dira. (10 minutu)

**BIDEOA:** <https://bertsoa.eus/bertsoak/10843-asmakizunak-oihane-perea-eta-iker-pastor>



→ **2. jarduera:** irakasleak ikasle bati hitz bat esango dio gainontzekoek irakasleak esandako hitz hori entzun gabe. Hitz hori entzun duen ikasleak bertso bat abestuko du gainontzeko ikasleek irakasleak esandako hitz hori zer den asmatu ahal izateko. Bertsoa abesten duen ikasleak bere bertsoan pistak eman behar ditu gainontzekoek hitz hori asmatu ahal izateko. Irakasleak esandako hitza edozer izan daiteke (pertsonaia, objektua, emozioa, kirola...). (20 minutu)

*Irakasleak esan ditzaken hitzak:*

<i>ITXASOA</i>	<i>SPIDER MAN</i>	<i>BELDURRA</i>	<i>ARKATZA</i>	<i>MENDIA</i>
<i>EGUZKIA</i>	<i>HULK</i>	<i>AZTERKETA</i>	<i>MAITASUNA</i>	<i>AULKIA</i>
<i>AUTOBUSA</i>	<i>DORAEMON</i>	<i>DANTZARIA</i>	<i>MOTXILA</i>	<i>PILOTARIA</i>
<i>OHEA</i>	<i>ETXEA</i>	<i>KATUA</i>	<i>MARTE</i>	<i>EUSKARA</i>

→ **3. jarduera:** ikasleak talde txikitik jarriko dira (4 ikasleko taldeetan) eta ikasle bakoitzak eurek nahi duten asmakizuna abestuko dute gainontzeko taldekideek hitza asmatu ahal izateko. (10 minutu)

#### **AGURRAREN UNEA**

→ **Saioaren itxiera:** amaitzeko, ikasleak talde handian kokatuko dira eta gaurko saioari buruz hitz egingo dute; zer ikasi duten, nola sentitu diren, saioaren helburuak bete diren, etab.

❖ **Oharrak:**

Asmakizunen bertsoa norberak nahi duen doinuan abestuko du.

Bertsoa jolasaren bitartez abestu behar izateak ikasleen parte hartzea sustatzen du baina parte hartu nahi ez duen ikasleei ez zaie bertsoa abesteko derrigortuko.

#### **5. SAIOA: HERRIAK ALA HIRIAK?**

**Materiala:** arbela digitala

**Lekua:** gela

**Denbora:** 50 minutu

### TOPAKETA UNEA

→ **Agurra eta saioko helburuak:** saioko helburuak zeintzuk diren errepasatuko dituzte. Horrez gain, gaurko saioan landuko duten gaia azalduko zaie, hau da, gaurko gaia herriak eta hiriak izango da. (5 minutu)

**Helburuak:**

- Bat bateko bertsolaritza sustatzea
- Bertsolaritzaren oinarritzko elementuak lantzea
- Ahozketasuna bermatzea
- Ikasleen parte hartzea sustatzea

### ATAL NAGUSIA

→ **1. jarduera:** ikasleek herria eta hirien arteko ezberdintasunen inguruan bertso bat entzungo dute. Ondoren ikasleek gaiaren inguruan hausnartzen arituko dira. (10 minutu)

**BIDEOA:** <https://bertsoa.eus/bertsoak/19039-zer-du-hiriak-herriak-ez-duena>

→ **2. jarduera:** irakasleak gela bi taldetan banatuko ditu: lehenengo taldea herrien aldekoa eta bigarren taldea hirien aldekoa. Ondoren, talde bakoitzari denbora tarte bat utziko zaie haien gaiaren inguruko arrazoiak adosteko. (10 minutu)

→ **3. jarduera:** talde bakoitzak bere gaia defendatzeko arrazoiak adosturik dituenen bi taldeen artean eztabaida bat sortu beharko dute, beti ere, adostutako arrazoi horiek bertsoen bitartez adieraziz. (20 minutu)

### AGURRAREN UNEA

→ **Saioaren itxiera:** talde handian gaurko saioko helburuak bete diren hitz egingo dute eta ondoren ea saioa nola joan den hausnartuko dute. Irakasleak ondorengo galderak erabili ditzazke; *“nola sentitu zarete eztabaidan?”*, *“saioa gustatu al zaizue?”*, *“hasieran finkatutako helburuak bete al dira?”*... (5 minutu)

❖ **Oharrak:**

Eztabaidan erabiliko den doinua eztabaida hasieran adostuko dute bi taldeen artean.

Ikasleei ez zaie bertsoa botatzera derrigortuko baina bai parte hartzera animatuko zaiola.

### EBALUAZIOA

	BAI	EZ	HALA NOLA
Bertsolaritzaren oinarriko elementuak barneratu ditu			
Parte hartu du			
Gaiarekiko interesa erakutsi du			
Ikaskideak errespetatu ditu			
Euskararekiko jarioa erakutsi du			
Bat batean bertsoak abesteko gaitasuna du			

### **HOBETZEKO PROPOSAMENAK**

\_\_\_\_\_ Gradu amaierako lan honi amaiera emateko ikerketa honetan zer hobetuko nukeen aipatuz amaitzea gustatuko litzaidake. Ikerketa hau borobila eta guztiz konplexua izateko nire esku hartzea edo proposamen didaktikoa praktikan jartzea faltatu zaidala esango nuke.

Sortutako proposamen didaktiko hau 2020-2021 ikasturtean Doneztebeko San Miguel ikastetxean burututako Practicum III-an lantzea gustatuko zitzaidakeen, baina zoritxarrez, praktikaldia hasi nuenean bertsolaritzako saioak daogeeneko amaituak zituzten. Hori dela eta, ez nuen sortutako saio sekuentzia hau praktikara eramateko aukerarik izan.

Etorkizun batean ikerketa honekin jarraitzeko aukera izango banu bat bateko bertsolaritzan oinarritutako proposamen didaktiko hau praktikara eramango nuke bertatik ondorioak atera eta bertsolaritzaren zabalkuntza eta hobekuntzak aurrera eramateko.

## **ERREFERENTZIAK**

Aizpurua, K. (et al) .(2008). *Bertsolaritzaren Curriculuma*. Lehen Hezkuntza. Lanku

Alberro, L., eta Bijuesca, J. (d.g.) “Bertsolaritzaren historia, subalternitate modu bat euskal literaturan” in Olaziregi, M. J.: Euskal Literatura ikerketak XXI. mendean: diagnostia eta erronkak. *FLV*, 50 urte, 29. Hemendik berreskuratua:

<http://www.fontes50.es/uploads/files/FLV50%20laburpenak%20resumenes.pdf#page=29>

Aulestia, G. (2020). Oralidad y bertsolarismo vasco. *Sancho el sabio: revista de cultura e investigación vasca*, 259-264 orr.

<https://revista.sanchoelsabio.eus/index.php/revista/article/view/276>

Azurmendi, J. (1980). Bertsolaritzaren estudiorako. *Jakin*, 14/15, 139-164.

Barandiaran, A. (2015). “*Bertsolaritza Eskolan izeneko programa Nafarroako Lehen Hezkuntzan*” in Núñez, X., Gonzalez, A., Pazos, C. eta Dono, P. (2015). Horizontes Científicos y Planificación Académica en la Didáctica de Lenguas y Literaturas, 245-260.

Bertsozale Elkartea. (d.g.). *Bertsolaritza ikastetxean*.

Bertsozale Elkartea. (d.g.). *Bertso ikasgela*. <https://bertsoikasgela.eus/info/>

Bertsozale Elkartea “1”. (d.g.). *Bertsozale Elkartea*. <https://bdb.bertsozale.eus/orriak/get/16-Bertsolaritzari%20buruz--transmisioa#bertsoeskolak>

Bertsozale Elkartea “2”. (d.g.). *Bertsozale Elkartea*. <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolaritza-ikastetxean>

Bertsozale Elkartea “3”. (2019). *Bertsozale Elkartea*. <https://www.bertsozale.eus/eu/albisteak/bertsolaritza-ikasgelan-sartzen-denean>

Bertsozale Elkartea “4”. (2021). *Bertsozale Elkartea*. <https://www.bertsozale.eus/eu/albisteak/bertsotan-trebatzeko-karta-jolasak-prest>

Bertsozale Elkarte "5". (2021). *Bertsozale Elkarte*.  
<https://www.bertsozale.eus/eu/albisteak/bertsoa-hezkuntza-arautuan-etengabe-egokitzen-et-a-berritzen>

Cook, T. D., eta Reichardt, C. S. (1986). *Métodos cualitativos y cuantitativos en investigación evaluativa*. Morata.

Garzia, J., Sarasua, J. eta Egaña, A. (2001). *Bat bateko bertsolaritza*. Hemendik berreskuratua: [https://bdb.bertsozale.eus/uploads/liburutegia/xdz5\\_Id\\_000716.pdf](https://bdb.bertsozale.eus/uploads/liburutegia/xdz5_Id_000716.pdf)

Gu ere bertsotan. Eskolan bertsolaritza sustatzeko egitasmoa. (2012). *Hik Hasi*.  
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20120501/gu-ere-bertsotan-eskolan-bertsolaritza-sustatze-ko-egitasmoa>

Iraola, R. (2001). "Bertsolaritzaren historia" in Ayerbe, E.: *Euskal kantu herrikoia*. Ostoia, Lasarte, 16-51.

Lekuona, J. M. (1982). *Ahozko euskal literatura*. Erein.

Lekuona, M. (1975). *Ahozko literatura*. Librería técnica difusión.

Michelena, L. (1960). *Historia de la literatura vasca*. Minotauro.

Otamendi, M. (2014). Gobernuak dirurik gabe utzi du "Bertsolaritza Irakaskuntzan". *Berria*.  
<https://www.berria.eus/paperekoa/1515/008/002/2014-04-09/gobernuak-dirurik-gabe-utzi-du-bertsolaritza-irakaskuntzan.htm>

Paya, X. (2013). *Ahozko euskal literaturaren antologia*. Etxepare Euskal Institutua.

Perez Aldasoro, P. (2009). *La memoria de la Guerra Civil en los versos improvisados populares vascos*. Euskal Herriko unibertsitatea.  
<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/18518/PPerez.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Pita Fernández, S., eta Pértegas Díaz, S. (2002). Investigación cuantitativa y cualitativa. *Cad aten primaria*, 9 (76-8).

## **ERANSKINAK**

### **GALDETEGIA**

➤ JOSU SANJURJO

#### **1. Nola aurkeztuko zenuke zure burua?**

Josu Sanjurjo Alzuri naiz, Iruñean lanean dabilen euskal zale bat.

#### **2. Zer nolako lotura duzu Bertsozale Elkartearekin?**

2017an langile gisa sartu nintzen. Lau ikasturte daramazki irakasle lanetan. Iruñerrian ibiltzen naiz nagusiki, baina Nafarroa osotik ere ibili izan naiz, adib: Agoitz, Tafalla, Tuter, Garalda...

#### **3. Nola aurkeztuko zenuke “Bertsolaritza ikastetxean” egitasmoa?**

Bertsolaritzaren oinarrizko elementuak modu parte hartzaile eta dinamiko batean barneratzeko sortutako programa bezala definituko nuke. Helburu gisa, ikasleen irudimena, jendeaurrekotasuna, intuizioa eta bat batekotasuna dira.

#### **4. Zein da proiektuaren helburu nagusia? Betetzen al da?**

Aurreko galderan erantzun dudan gisan, helburu nagusia bertsolaritzaren oinarrizko elementuak barneratzea da, eta egia esan emaitza oso onak izaten ditugu. Beraz, bai, erran genezake helburuak betetzen direla.

#### **5. Zer nolako bilakaera izan du proiektuak sortu zenetik gaur egun arte?**

Hasiera batean, ikas gelan bertsoa idatziz lantzeko tendentzia orokorra zegoen. Azken urte hauetan ahozkoitasuna eta bat batekotasuna lantzerantz eboluzionatzen ari gara. Hori izanaren litzateke bilakaera prozesuaren ezaugarri nagusia. Baliabideei dagokienez, bertsoikasgela.eus web gunea sortu zen eta horrek ikastaroaren digitalizazioa bermatu zuen.

#### **6. Zerk eragin zuen “gu ere bertsoan” ikasmaterialetik “mundo bat bertso” ikasmaterialera aldatzea?**

Une konkretu horretan oraindik ez nengonen elkartean, baina suposatzen dut barne gogoeta batek eragingo zuela. Tematika garatzen joaten da eta materialak etengabeko berrikuntza behar du, bertsolaritza garai berrietara egokitu behar delako.

**7. Zure saioak aurrera eramaterakoan material hori erabiltzen al duzu?**

Normalki material hori ahalik eta gehien probesten saiatu izan naiz. Hala ere, badira zenbait elementu ez direnak hain baliagarriak euskararen periferian kokatutako lekuetan lantzeko. Horregatik, neronek sortu izan ditut nere unitate didaktiko propioak, Iruñerriko ikasleek euskara mailara egokituko zirenak.

**8. Aurrera eramaten ari zareten metodologia aldaketa berri hau onuragarria dela uste al duzu?**

Uste dut aldaketa guztiak badutela logika bat. Hala ere idatzizko bertsogintza lantzen jarraitu nahi nuke nik, uste dudalako, hasiera batean bederen oso egokia dela bertsolaritzaren metrika eta gisako elementuak ulertzeko.

**9. Euskarari dagokionez, bertsolaritzak ikasleengan zer nolako eragina duela ikusten duzu?**

Uste dut eragin positiboa izaten duela. Azken finean jolasteko harraminta bezala erabiltzen dugu bertsolaritza eta horrek euskararekiko lotura ere aberasten du. Hala ere, nik ez dut bertsolaritza "euskal" bandera horren pean erakusten, irudimena lantzeko tresna moduan baizik. Nere iritziaren arabera, jolas modura erakuste horrek bertzea ekarriko du. Adibidez, ez zait hain garrantzitsua iruditzen ikasle batek Lazkao Txiki nor zen edo ez jakitea, baina bai hitzetik jolasteko baliabideak edukitzea.

**10. Bertsolaritza euskal kulturako zati bat izanik ikasleak proiektuaren esker euskal kulturaren barneratzeko motibatzen direla uste al duzu?**

Egia erran, behin bertsolaritzaren elementuak eta ekosistema ulertzen dutenean diziplina hori bereganatu egiten dute eta lotura hori bizitza guztirako garatzen dela uste dut. Beraz bai, ikasleak euskal kulturaren barneratzeko aukera gehiago dituzte bertsolaritzari esker.



## **11. “Bertsolaritza ikastetxean” proiektua baliagarria dela iruditzen al zaizu? Zergatik?**

Erabat. Zeharka bada ere, gelan lantzen ez diren milaka aspektu lantzen ditugulako, jendeurrekotasuna, ahozkotasuna, intuizioa, irudimena, euskara maila.... Guzti hori modu dibertigarri batean egiten dugu eta ikasleak erantzun bikaina izaten dute.

## **12. Zerbait aldatzekotan zer aldatuko zenuke?**

Zerbait aldatu beharko banu, kurtso erdiaren ordean, kurtso osoko ikastaroak egitea izanen litzateke. Azken finean 15 saiotan ikasleak ez dituzu ongi ezagutzen eta gela bakoitzaren nondik norakoak nekez ulertzen dituzu. Aldiz, ikasturte guztian lanean aritzeak, ikasleak eta taldea bera hobeki ulertzea ekarriko luke

➤ IKER GOROSTERRAZU

### **1. Nola aurkeztuko zenuke zure burua?**

Afizioz eta ofizioz bertsozalea, lagunaren laguna eta hurbilekoa. Tarteka burugogorra eta beti laguntzeko prest dagoen 31 urteko Itundarra.

### **2. Zer nolako lotura duzu Bertsozale Elkartearekin?**

Ikasketak akitu eta berehala Bertsozale Elkartearen irakasle zein eragile gisa lanean hasi nintzen ordezkapen bat eginez. Aurretik, unibertsitatean nengoelarik Txantreako bertso eskolako irakasle izateko proposatu zidan Bertsozale Elkarteak eta 18 urterekin bertan hasi nintzen barrenetik elkartearen ezagutzen. Orduetik irakasle, eragile eta bolondres gisara harreman zuzena dut egunerokoan Bertsozale Elkartearekin.

### **3. Nola aurkeztuko zenuke “Bertsolaritza ikastetxean” egitasmoa?**

Bertsolaritzara hurbilpena egin eta bertsogintzaren transmisioa gauzatzea helburu duen egitasmoa da. Horretarako ikasleak bertsoaren ezaugarri nagusiak (doinuak, neurriak eta teknika orokorra) ezagutzuz euskaraz modu ludikoan gozatzeko aukera izanen du. Bertsoaren bidez trebetasun sozial eta pertsonalak garatu ohi ditugu, hala nola jendeurrekotasuna zein komunikatzeko modu ezberdinak. Ahozkotasunaren lanketa erabatekoa da eta ikasleen interesetatik abiatutako materiala du oinarri. Sormenak ikastetxeetan duen presentzia urria ikusirik programa honen balioa izugarria da.

#### **4. Zein da proiektuaren helburu nagusia? Betetzen al da?**

Proiektuaren helburu nagusienak goian aipatutakoak izanik orokorrean betetzen direla erranen nuke. Gaur egun programa jasotzen duen ikasle oro gerora bertso bat egiteko gai da eta zeharka edo zuzenean curriculumean jasotako lau zutabe garrantzitsu landu ohi ditugu: hizkuntza, kultura, trebetasun sozial eta pertsonalak, eta musika.

#### **5. Zer nolako bilakaera izan du proiektuak sortu zenetik gaur egun arte?**

Niri dagokidanez azken 10 urteotan Nafarroan behintzat aldaketa garrantzitsuak izan ditugu. Materialgintzan izugarriko hobekuntzak nabaritu dira urtetik urtera eta gaur egungo egoera digitalera oso ongi egokitu gara. Gainera, orain arte landutakoaren abiapuntua idatzizko bertsogintza izan bada ere, azken urteetan bat-bateko bertsogintzara pausu garrantzitsuak eman dira horrek ahozkotasunean dakartzan onurekin.

#### **6. Zerk eragin zuen “gu ere bertsoan” ikasmaterialetik “mundo bat bertso” ikasmaterialera aldatzea?**

Modu naturalean materiala urtero berritzen joan ohi gara elkarteko irakasle guztion artean. Modu honetan, liburuetan ez ezik, mundu digitalera emandako jauzia oso garrantzitsua izan da, gaur egun, bertsoikasgela.eus web orria erreferentzia nagusi bilakatu delarik. Aipatzekoa da herrialdeen artean desberdintasunak daudela eta Nafarroan, adibidez, urte batzuk daramatzagu ikasleek liburu fisikorik ez dutela.

#### **7. Zure saioak aurrera eramaterakoan material hori erabiltzen al duzu?**

Nire saioak aitzinera eramateko erreferentzia nagusia lehen aipatu bezala bertsoikasgela.eus web orria da. Bertan, orain arte azken urteetan sortu dugun material guztia ikus-entzunezko moduan aurki dezakegu, baita PDF formatuan ere fisikoki erabili nahi izanez gero. Honetaz gain, ikastetxe bakoitzara edo herri bakoitzaren errealitatera egokitutako materiala ere sortu ohi dut.

#### **8. Aurrera eramaten ari zareten metodologia aldaketa berri hau onuragarria dela uste al duzu?**

Ikasleen motibazioan eragin duela uste dut, onerako noski. Gainera, ohartu naiz idatzizkoan ikasle batzuek zailtasun dexente garatu ohi zituztela eta desberdintasun gehiago sortu ohi zirela ikasleen artean. Adibidez, dislexikoak diren ikasleek askoz gehiago disfrutatzen dute bat-batean arituz gero eta frustratzeko aukera gutxiago daude. Bertsoaren berezitasun nagusia inprobisazioa izanik modu honetan bertsolaritza bere osotasunean ezagutzeko

aukera dute ikasleek, idatzizkoa baztertu gabe. Ikasleek hutsetik beraien ekoizpenak sortzen dituzte eta horrek autoestiman izugarritzko eragin positiboa du.

**9. Euskarari dagokionez, bertsolaritzak ikasleengan zer nolako eragina duela ikusten duzu?**

Izugarritzko eragina du euskararen komunikazio gaitasunean. Ikasleek modu ludikoan euskara hutsean jarduten dute; jardun ez ezik, euskaraz soilik pentsatzen dute eta honek guztiak euskararen erabileran zuzeneko eragina du. Gainera, guzti hau gozamenean oinarrituz egin ohi dute.

**10. Bertsolaritza euskal kulturako zati bat izanik ikasleak proiektuaren esker euskal kulturari barneratzeko motibatzen direla uste al duzu?**

Ikastaroaren bukaeran ikasleekin egin ohi dugun ebaluazioan ikasle guztiek edo ia guztiek gustura jardun direla aitortzen dute. Klasetik klasera ikasleak zeinen gustura dabilzan ikusita zalantzarik ez dut gozamenetik eta sormenetik oso motibatuta egoten direla ikastaro osoan zehar. Euskal kulturaren adar garrantzitsuetako bat bertsoa izanik euskal kulturaren mundu txiki batean sartu eta gozatzeko aukera paregabea dute. Gainera, bertsoa aitzakiatzat hartuz gainerako diziplina kulturalak ere landu ohi ditugu, hala nola antzerkia.

**11. “Bertsolaritza ikastetxean” proiektua baliagarria dela iruditzen al zaizu? Zergatik?**

Uste dut lehen ere aipatu ditudala baina hainbat arrazoirengatik baliagarria bezain garrantzitsua da proiektu hau: bertsogintzan gozamenetik trebatzeko, sormena lantzeko, ahozko komunikazioan eragiteko, jendaurrekotasuna lantzeko, autoestimarako, euskal kulturarek zati garrantzitsu bat ezagutzeko...

**12. Zerbait aldatzekotan zer aldatuko zenuke?**

Etengabeko aldaketan murgilduta gauden gizarte batean bizi garenez beti daude gauzak aldatzeko. Hala ere, etengabeko formakuntza oinarri gisa harturik beti joanen gara eraldatzen gure proiektua ikasle guztien beharretara egokitzeko.

➤ MIKEL ARTOLA

**1. Nola aurkeztuko zenuke zure burua?**

Mikel Artola naiz, alegiarra. Bertsotan zerbait aritua eta Bertsozale Elkarteko langilea. Horrez gain, Harituz Tolosaldeako bertsoeskolako sortzaile eta kide ere banaiz.

## **2. Zer nolako lotura duzu Bertsozale Elkartearekin?**

Bertsozale Elkarteko transmisio eragilea. Gipuzkoako lantaldean ditut zeregin batzuk, besteak beste irakasle izan eta irakasleen formazioaz arduratzea. Horrez gain, antzeko lanak ditut EHko beste lurraldeetako irakasleekin ere, baina neurri txikiagoan. Horrez gain, pedagogia batzordeko arduraduna naiz.

## **3. Nola aurkeztuko zenuke “Bertsolaritza ikastetxean” egitasmoa?**

Bertsolaritza hezkuntza arautuan lantzeko egitasmoa da. Ikastetxeen eskariz, bi astez behin edo astero (lekuaren arabera) joaten da bertsolaritzako irakaslea. Kurtso bat edo bi irauten du programak. Ondoren, jarraitu nahi duten ikasleak bertso-eskolan apuntatzen dira.

## **4. Zein da proiektuaren helburu nagusia? Betetzen al da?**

Proiektuak helburu bat baino gehiago ditu: bertsolaritzaren oinarrizko ezagutza bermatzea; komunikazio gaitasuna lantzea; euskararekiko jarrera positiboa bultzatzea; bertsozaletzea...

Helburu zehatzagoetara joz, Bertsolaritzaren Curriculumak adierazten ditu zeintzuk diren. Hizkuntza, musika, kultura eta trebetasun pertsonal/sozialak lantzen dira bertsolaritzaren bidez.

## **5. Zer nolako bilakaera izan du proiektuak sortu zenetik gaur egun arte?**

Proiektuak hazkuntza etengabea bizi izan du. Neu ez nengoen hasieran, baina gaur egun nahiko egonkortua dagoen proiektua da. 28500 ikasle eta 50 irakasletik gora ari dira lanean.

## **6. Zerk eragin zuen “gu ere bertsoan” ikasmaterialetik “mundu bat bertso” ikasmaterialera aldatzea?**

Muinean ez zuen aldaketa handia ekarri. Esango nuke ikasleentzat ereduazko bertso sortak eta bertsoaldiak izan zirela nobedadea. Baina bestela, Curriculumak proposatzen duen metodoari eutsi zitzaion: sekuentzia didaktikoarenari.

## **7. Zure saioak aurrera eramaterakoan material hori erabiltzen al duzu?**

Ez, ez dut libururik erabiltzen. Gaur egun bertsoikasgela.eus da erabiltzen duguna. Bertan, albisteetan, aurkituko dituzu hainbat ariketa.

## **8. Aurrera eramaten ari zareten metodologia aldaketa berri hau onuragarria dela uste al duzu?**

Bai, noski. Bertso saioetan sortzen den esperientzia gelara eramaten saiatzen gara, eta ahozkotik hurbilago dauden ariketak proposatzen ditugu bertsoan ikas-irakasteko. Bertso-eskoletan lehen ere egiten ziren horrelako gauzak, eta zenbaitek baita hezkuntza arautuan ere. Dena den, bertsolaritzaren ikasprozesua mailakatzeko ahalegina egin dugu, eta horri egokitutako jarduerak egiten ditugu gelan. Errimatzen, neurtzen eta kantatzen errazago ikasten dutelakoan gaude, eta bizitzen duten esperientzia ere desberdina dela esango nuke. Oraindik ez dugu, hala ere, ikerketa amaitu, metodoa aldatzearekin batera horretan ari baikara.

9. Euskarari dagokionez, bertsolaritzak ikasleengan zer nolako eragina duela ikusten duzu?

Esango nuke motibazioan duela lehen eragina. Bertsoan egitea jolas erakargarria bihurtzen da, eta horrek euskararekiko harreman gozagarria sortarazten du. Hau oso inportantea dela uste dut. Bestetik, egoera komunikatibo konplikatu baten aurrean jartzen dira, eta egitea lortzen badute (gehienek lortzen dute) euren autoestimuan ere eragina du.

Hizkuntza gaitasunari dagokionez ere aurerrapausoak ematen dituztela esango nuke: bai egoera komunikatibo desberdinez jabetzeko garaian, bai hiztegian edo gramatikan, orokorrean. Errimatu eta neurtu beharrak hizkuntza lantzea dakar ezinbestean. dena den, hemen ere ikerketa beharra daukagu.

**10. Bertsolaritza euskal kulturako zati bat izanik ikasleak proiektuaren esker euskal kulturari barneratzeko motibatzen direla uste al duzu?**

Bai. kulturaren transmisiorako oso garrantzitsua da. gainera, modu partehartzailean egiten da transmisio hori, eta hori oso inportantea da. Ez da bakarrik bertsolaritza "hau" da ikastea, baizik eta bertsolaritzaren esperientzia(k) bizitzea. Ez da ahaztu behar, gainera, kantu inprobisatua ez dela bertsolaritza bakarrik, beste kulturetan ere egiten da.

**11. "Bertsolaritza ikastetxean" proiektua baliagarria dela iruditzen al zaizu? Zergatik?**

Bai. Guztiz beharrezkoa da, eta uste dut leku gehiago behar lukeela. Nahiz eta berez ikastetxeek beraiek landu behar luketen, bertsolaritzako irakasle espezialista ikastetxeetara joateak "plus" bat du, eta horri eustea oso garrantzitsua da. Gainera, kulturgintzaren transmisioan zein ahozkotitasuna lantzean hutsuneak daude, eta horri erantzuteko modu bat da hau, nahiz eta ez dituen arazo guztiak konpontzen.

**12. Zerbait aldatzekotan zer aldatuko zenuke?**

Aldatu baino, uste dut gure jardunean sakondu behar dugula. Horretarako beharrezkoa da proposamen berriak proban jartzea eta ikerketa bultzatzea. Bestetik, irakasleen formazio gogoetatsua edo errealista ere oso garrantzitsua izango da datozen ikasturteetan.